

HAIEK IZAN ZIRENARI ESKER, GAUR GU GARA

Azken urteotan, milioika emakume gazte eta langile mundu osoan zehar altxatu gara sistema honetan pairatzen dugun matxismoaren, gehiegikerien eta zapalkuntzen aurka.

Gure askapenaren aldeko borroka eta matxismo instituzionalaren eta justizia patriarkal eta klasistaren aurkakoak, jauzi izugarria egin du. Langile klaseko emakumeak — langileak, gazteak, etxekoandreak, pentsiodunak, langabe-tuak... — gara mugimendu horren protagonista, zalantzarik gabe.

Feminista iraultzaileok, kapitalismoaren, arrazakeriaren eta faxismoaren

aurkako gudan, ez dugu zalantzarik borroka handi honetan gure aurretik izan diren aitzindari ausart guztien lekukoa hartzeko, era guztietako zapalkuntzei gerra deklaratu.

Marxismoak —etengabe gezur beltzez erasotu dutena kapitalismoak eta feminismo burges eta txiki-burgesaren defendatzaileek— ahotsa eta ikusgarritasuna eman zien emakume teoriko eta militante handiei. Klase agintariaren historia ofizialak bereak eta bi egin dituzten euren lan eta bizitzak ezkatatu, desitxuratu eta ezabatzeko. Emakumearen zapalkuntza oinarri ekonomikoetatik sortzen dela eta gure diskriminazioa gizar-tearen garapen egoera jakin baten baitakoa dela arrazoituz, patriarkatua klase

sozialekin jaito zela azalduz, emakumearen askapenaren aldeko sua piztu zuten marxistek, inoiz ez zen bezala. Asko dira borroka iraultzailearen lehen lerroan egon izan diren emakumeak. Langile klasearen eta emakumearen askapena erabat bateraturik dagoela aldarrikatzen zuen **Flora Tristán** sozialista eta feminista; 1871n Parisko Komunan iraultzaren barrikadan egon ziren **Elisabeth Dmitrieff** eta **Louise Michel**; **Sylvia Pankhurst** bezalako sufragista internazionalistak; **Eleanor A. Marx** bezalako sindikalista ne-

kaezinak; **Clara Zetkin** eta **Rosa Luxemburgo** Alemaniako komunistak; Errusiako boltxebikeak, **N. Krúpskaya**, **A. Kollontái**, **I. Armand**, **L. Reisner**, **N. Sedova** besteak beste, 1917ean Urriko Iraultzarekin desberdintasun eta zapalkuntza sozialik gabeko gizarte benetan justu eta demokratikoa eraikitze-ari ekin ziotenak.

Horiek guztiek, garai eta herrialde ezberdinetan, errepresioa eta erbestea jasan zituzten. Baina horrek ez zuen ekidin beren bizitzak sistema honek kondentatzen gaituen iluntasun eta biolentzia putzutik gabetuak askatzera ematea, baita klaserik gabeko gizarte baten alde gainerako zapalduekin batera borrokatzerara ere.

Haien ondarea aztertzea, emakume erraldoi horiek guztiak ahanzturatik erreskatatzea eta dagokien lekua ematea da *Mujeres en revolución* liburaren helburua, Estatu epainiareko, Mexikoko, Portugalgo eta Alemaniako Ezker Iraultzaileko militanteek idatzitako feminismo iraultzailearen hamabi aitzindariaren biografiak biltzen dituen liburua.

Liburu hau eskura dezakezu
F Engels Fundazioaren
ONLINE LIBURU dendan.

fundacionfedericoengels.net

200 orrialde
10 euro



14. zenbakia

622 174 122
askeetaborrokalarriak@gmail.com
www.libresycombativas.net




**EZKER
IRULTZAILEA**

Emakume Aske eta Borrokalariak

Feminismo iraultzaile eta antikapitalista



KALEAK HARTUKO DITUGU INDARTSU



Greba orokor feministaren alde! Kaleak hartuko ditugu indartsu!

2003tik, Euskal Herrian 113 pertsona hil ditu indarkeria matxistak, 1.125 emakume Estatu espainiar osoan. Justizia patriarkal erasotzaileak babesten dihardu. Milaka emakume eta neskatu pobre salerosketaren, prostituzioaren, pornografiaren eta alokairuko sabelen biktima izaten jarraitzen dute. Osasun publikoan sistematikoki ukatzen da abortu eskubidea. Desberdintasun sozialak, soldata arrakalak eta langabeziak eten-gabe kolpatzen gaituzte.

Bien bitartean, integrismo katolikoak, PPK eta Vox eskuin muturrak LGBTIfobiaren eta matxisismoaren pozoia hedatzen jarraitzen dute, 78ko erregimenak ematen dien estalki politikoari esker. Ondorioz, gora egin dute %30ean bortxaketa salaketek —Estatu espainiarrean egunero 6 kontatzen dira— eta gure orientazio edo identitate sexualagatik jasaten ditugun eraso fisikoek, baita erailketek ere, eta zigorrak gabe geratzen dira.

Pandemiaren bi urte hauetan izugarri gogortu den indarkeria jasanezin eta onartezin horren aurka altxatu izan gara milioika emakume langile eta gazte.

Azpirarratu beharra dago ez dugula hobekuntza nabarmenik ikusi PSOE-UP Gobernuarekin. Bi urteren ondoren, eta

propaganda ofizialak dionaz bestalde, bere buruari “Gobernu feministena” deitu diotarik, Elizaren botereari aurre egiteari, bere horretan utzi ditu proxeneten negozioak eta epai patriarkal onartu ditu. Polizia bidali du protesta soziala erpremitzera, eta eskoletan sexu hezkuntza inklusiboko ikasgaia ezartzekari uko egin dio. Horrela ez dira emakumeen eskubideak defendatzen! Funtsean, EAJ eta PSOEren gobernu autonomikoek EAEn eta Nafarroan egin dituzte politika berberak dira.

Borroka feminista antifaxista, antirrazista eta antikapitalista da, eta trans pertsonen eta LGBTBI kolektibo osoaren borrokaekin lotuta dago. Inork ez digu inoiz ezer oparitu, gure eskubide guztiak mobilizazioarekin lortu ditugu.

Datorren martxoaren 8an aukera paregabea dugu, “ez dugu beldurrik!” oihukatzeke, etxean, isilik eta otzan nahi gaituztenei. Emakume Aske eta Borrokalariak

riok, Ikasle Sindikatuek eta Ezker Iraultzaileko kideen ustez, beharrezkoa da mugimendu feministak eta klaseko sindikatuek egun horretan greba orokorra deitzea. Are gehiago, kontuan hartuz iaz Estatu espainiarreko gobernuak eta feminismo instituzionalizatuak, pandemia argudiatuz ez manifestatzeko deia egin zuenean, legez faxisten aldeko mar txak edo kirol ekitaldi jendetsuak egingen ziren bitartean.

Eskuin muturrak gure eskubideen aurka egiten duen erasoaldiari aurre egiteko bidea mobilizaziorik sendoena da. Horrenbestez, Emakume Aske eta Borrokalariak, Ikasle Sindikatuarekin batera, dei egiten diegu ikasle guztiei M8ko greba orokor indartsu batean gelak husteko eta kaleak masiboki betetzeko 12etako manifestazioetan eta arratsaldeko deialdi bateratuetan.

Indarkeria matxistaren, LGBTIfobiaren eta faxismoaren aurka: denok grebara!

Kontsultatu manifestazioak libresycombativas.net edo ikaslesindikatu.net webguneetan



Emakume Aske eta Borrokalariak ekintzan

Benetan garena izan nahi dugu

Trans eskubideen eta LGBTBI kolektibo osoaren alde mobilizatu gara, kaleetatik oihukatuz feminismoa ez dela transofobial, zigor eredu-garria exijituz gure orientazio edo identitate sexualagatik kolpatzen, umiliatzen eta erailtzen gaituztenei, eta LGBTBI mugimendu iraultzaile eta borroka mugimendu bat bultzatuz.



Prostituzioaren abolizioaren alde

Gure gorputzen salerosketa ez da ez aukera aske bat, eta inolaz ere ez gaitu ahalduz. Muturreko indarkeria da emakumeen aurka eta, bereziki, pobreenen aurka. Beti egon gara eta egongo gara prostituzioaren, pornografiaren, emakumeen trafikoaren, alokairuko sabelen eta gure gorputzen merkantilizazioaren aurka. Mundu osoko gobernu kapitalistek onartutako negozio aberats nazkagarri honen amaiera eskatzen dugu. Eta ez dugu amorerik emango proxeneten eta pertsona-trafikatzaileen zigorrak gogortzeko eta haien ondare guztia desjabetzeko borrokan, nahiz biktimak sozialki erreskatzeko borrokan.

Abortu libre, doakoa eta osasun publikoan!

Ez Elizak, ez sistemaren ordezkariak eta haien moral bikoitz ustelak ez dute eskubiderik gure gorputzen inguruan erabakitzeke. Ezinbestekoa da bermatzea osasun publikoan abortu libre, doakoa eta segurua izateko eskubidea, ugalkortasun tratamendu publiko eta doakoak izateko eskubidea eta ginekologia arreta duina eta kalitatezkoa izateko eskubidea, gure osasunaren aldezkatu jarraitzearekin eta bularreko, obulutegiko edo umetoki-minbizia, STGak edo beste edozein gaixotasun ahalik eta azkarren detektatu, prebenitu eta artatzeko tratamenduekin.



Gora emakume langilearen borroka!

Langile klaseko emakume gazteak eta langileak gara, eta Aske eta Borrokalariak borrokan ari diren dozentzako kolektiboren eta haien aldarrikapenen alde egin dugu: Essure antisorgailuak kaltetutakoak, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuko (ELZ) lankideak, Gregorio Marañon Ospitalea garbitzeokoak, Kellyak, pentsiodunak... Atzo nahiz gaur, zapalduenen antolakuntza da bide bakarra.




Derrigorrezko sexu hezkuntzako ikasgaiaren alde

Matxismoa eta erlijioa gure ikasgeletatik kanpo nahi ditugu! Horregatik defendatzen dugu sexu hezkuntzako irakasgai inklusibo eta aske bat bultzatu behar dela, ikastetxe guztietan derrigorrezkoa eta ebaluagarria izango dena, berdintasunean, errespetuan eta tolerantzian hezteko. Kalitatezko familia plangintzako zerbitzu publikoak nahi eta behar ditugu, baita doako metodo antikonzeptiboak ere institutu eta fakultate guztietan. Ezin dugu gehiago itxaron!



Justizia patriarkalaren aurkako gerra

Asturiasen “Justizia Pazentzat” edo Mexikon “ez zauden bakarrik” kanpainen egin dugun bezala, Emakume Aske eta Borrokalariak nortasun ezaugarrietako bat justizia matxista, homofobo eta frankista salatzea eta horren aurka mobilizatzea da, behin eta berriro jartzen baikaitu eskarnio publikoaren aurrean, errua guri leporatzen baitigu eta erasotzaileei inpunitea emanez kolpatzen baikaitu. Elementu erreazionario eta faxista guztiak kanporatu behar dira Estatu ahar dira beren jarrera eta erabakiekin gure erasotzaileen inpunitea bultzatzen duten polizia, epaile eta fiskal guztiak!



Justizia patriarkala garaitu dugu!

Hainbat emakumeren bortxatzailearen aurkako epai historikoa Mexikon

2018ko abenduaren 21ean, Libres y Combativas Mexikoko kide bat lapurtu, bahitu eta bortxatu zuten Mexiko Hiriko Iztapalapa alkateetan. Egun horretatik aurrera, jarrera higuigarri eta arduragabe bati aurre egin behar izan genion, ustez horrelako delituak ebazteaz arduratzen diren agintarien aldetik.

Ministerio Publikoa biktima konbentzitzen saiatu zen salaketarik ez egin ez zezan, “prozesu luzea izango zelako”, eta ikerketan gertatzen ari ziren irregulartasun guztiak ezagutu ondoren, Libres y Combativas “Ez zauden bakarrik” kanpaina abiaraztea erabaki genuen, 2019ko urtarrilean. Kasu hau ezagutzera eman behar genuen, Mexikon emakumeok jasaten dugun egiturazko indarkeria eta justizia patriarkala salatzen jarraitzeko, baita kaleetatik ere. Eta horrela egin genuen.

Ia hiru urtez aurre egin diegu uste-keriari eta prozesu judizialen luzapena, salaketak tortura are handiago bihurtzen baituzte biktimentzat eta haien familientzat. Pandemiaren aitzakian epai-kerak atzeratzeko saiakera geldiarazi genuen. Hamabi ekitaldi publiko eta mitin antolatu genituen, kexak bidali genizkion Mexiko Hiriko Giza Eskubideen Batzordeari, Mexiko osotik eta nazioartean iritsitako 300 sinadura baino gehiago eman genizkion auzitegiei, erasotzailei buruzko informazio berria eman genuen geure kabuz; jakin genuen lehenago beste hamar emakumeri eraso zela gutxienez Iztapalapa-ko eremuan. Hau da, eskura ditugun tresna guztiak erabili genituen eta gora egingen ari den mugimendu feministaren baten presioa, ikusiak eta entzunak izan gaituzten.

Metodo horiei esker, gure kidearen ausardiari eta indarrari esker, eta ehunka kolektibo eta ehundaka emakume eta gizonengandik jaso dugun babesari esker, epai eredu-garria ez ezik, historikoa ere lortu genuen 2021eko azaroaren 19an: 81 urte eta 6 hilabeteko kartzela zigorra bortxaketa anitz egindako gizon ba-

ten aurka, bahiketa espres larriagoaren eta bortxaketaren delituengatik. Kasuaren ebazpen hori are garrantzitsuagoa da kontuan hartzen badugu Mexikon egunero 11 feminizidio gertatzen direla eta bortxaketagatik salaketan %5ek soilik lortzen dutela epaieren bat —gehieneko zigorrak 17 urtekoak izaten dira, 90 urtera arte iristen diren bahiketengatik kondenekin alderatuta—.

Gaur bortxatzaile bat gutxiago dago Mexikoko kaleetan. Mobilizazioari esker, justizia lortu dugu kriminal honen biktima guztientzat. Erakundearekin bakarrik eta borrokarako feminismo antikapitalista bat defendatuz lortu ahal izango dugu indarkeriarik gabeko bizitza bat, hainbeste sufrimendu eta umiliaziari amaiera ematea eta sistema kapitalista patriarkal hau garaitzea.

